

MUXIKA / Berdintasuna lantzen

ENDIKA URLEZAGA

Muxikako Udalak zenbait ikastaro antolatu ditu Berdintasun Planaren baitan. Ikastaro horien helburuak herriko biztanleen arteko harremanak lantzea eta herri-guneari bizitasun handiagoa ematea dira, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lantzearekin batera. Ildo horretatik, "oso pozik daudela azaldu du liburutegiko arduradunak. "Izan ere, giro bikaina sortu da irakasleen zein ikasleen artean, eta ikastaroek harrera ona izan dute.

Udalak antolatu dituen hiru ikastaroak Josturarena, Yogarena eta Pilatesena dira. Astean klase bi ematen dituzte. Liburutegitik azaldu bezala, "jendea oso gustura etortzen da klaseetara. Herriko jendearekin hitz egiteko eta herrian bertan bestelako aukera batzuk izateko balio dutela uste du.

Guztira 63 personak eman dute izena ikastaroetan. Hain zuzen ere, Jostura ikastaroan hemezortzi ikasle daude, Yoga ikastaroan 25 eta Pilates ikastaroan hogeitabi. "Jende asko da, eta Yogaren taldean, esaterako, talde bi egin behar izan ditugu. Gainera, adin guztietako jendea animatu dela eta jostura ikastaroan jende gazte asko dagoela nabarmendu dute.

Hori dela eta, oso pozik daude antolatzaileak. "Zerbait antolatzen duzunean eta jendeak erantzuten duela ikustean poztasun itzela sentitzen da.

Ikasleentzat zein Udalarentzat esperientzia aberasgarria dela uste dute.

Hala ere, 63 ikasle horietatik hiru baino ez dira gizonezkoak eta datorren ikasturterako puntu hori aldatzen saiatu behar direla deritzote. "Aurtengo ikastaroak antolatu ditugun lehen aldia izan da, eta beldurra egon dela uste dugu.

Hori dela eta, datorren urteari begira gizonezko gehiago animatuko direla uste dute. "Orain dauden hiru gizonezkoak oso gustura daude. Ahoz-ahozkoaren eraginez, datorren urtean gehiagok emango dutela izena uste dugu.

Zenbait arazo ikastaroak antolatzerako orduan

Liburutegiko arduradunaren hitzetan, "zenbait arazo izan dituzte ikastaroak antolatzerako orduan. Lehendabizi "leku eza aipatzen du arduradunak. "Orain arte ezin izan dugu era honetako jarduerarik antolatu non egin ez genuelako. Zubieta-Errota eraikinari esker arazo hori konpondu dutela dio. "Orain arte muxikarrek Gernika-Lumora joan behar izan dute era honetako jarduerak antolatzeko.

Beste arazo nagusia irakasleak aurkitzearena izan dela zehaztu du liburutegiko arduradunak. "Gure ikastaroak martxoan hasi dira, leku gehienetan urrian hasi zituzten bitartean. Hori dela eta, irakasleak aurkitzean zailtasun nahiko handiak izan dituzte.

Arazoak albo batetara utzita, "oso pozik daude eta, aurtengo arrakasta ikusita, datorren ikasturtean ere lan horretan jarraitzeko asmoa dute.